

2016/4/13



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Herriko plaza 1 – 20150 Aduna

Tel: 943692571 Fax: 943690262

E-mail: udala@aduna.eus Web: www.aduna.eus

APIRILEKO PLENOA

2016ko apirilaren 15ean, OSTIRALA, 15:00tan, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo da ez ohiko Batzarra.


EGUNEKO AZTERGAIAK

- 1.- AURREKO UDALBATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONESPENA.
- 2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN KONTU EMATEA.
- 3.- UDALBILTZA PARTZUERGOAN SARTZEKO ESKAERA ETA ESTATUTUEN ONARPENA.
- 4.- DONOSTIAKO AUZI ERREKURTSOEN 3. EPAITEGIAREN 217/2013 SENTENTZIAREN EJEKUZIOA BETETZEKO EGINTZA ADMINISTRATIBOAREN ERREBISIOA EBAZTEA, ERABAT DEUSEZTZAT JOZ ALKATETZAREN 2007KO IRAILAREN 8KO 92/2007 DEKRETUA.
- 5.- EUSKAL FONDOTIK DIRUZ LAGUNDUKO DIREN PROIEKTUEN ONARPENA.
- 6.- EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAREN ESKAERAREN EBAZPENA.
- 7.- EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA ALDATZEKO HASIERAKO ONARPENA.
- 8.- ADUNAKO UDALARI ESKATUTAKO ZENBAIT DIRULAGUNTZEN ONARPENA.
- 9.- UDAL TALDE POLITIKOEN EKARPEN EKONOMIKOA ONARTZEA.
- 10.- MOZIOEN AZTERKETA ETA ONARPENA.
- 11.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA ETA ONARPENA.

AGENDA

Apirilak 15 (Ostirala) – 15:00 Plenoa (Pleno aretoan)

Apirilak 24 (Igandea) – 16:30 Gorostidi Harria (Adunako frontoian)



ZIZURKILGO UDALA

PLAZIDA OTAÑO AIZTONGO BAILARAKO LIBURUTEGIRAKO BEHIN-BEHINEKO LIBURUTEGIKO LANGUNTZAILE BATEN KONTRATAZIOA

Izena emateko epea:
2016/04/21eko eguerdiko 14:00ak arte.

Izena emateko tokia: eskaera Zizurkilgo Interesatuek eskaera Zizurkilgo Udaleko Aurrerako udal-bulegoetan egin beharko dute. Curriculum eta eskatutako titulazioaren kopia konpultsatua ere entregatu beharko da.

Izangaien baldintzak:
Betebeharrak:

- a) Lanak burutzeko funtzio-gaitasuna izatea.
- c) 16 urte betetik izatea eta nahitaez erretiratze adinera iritsi gabe egotea.
- d) Diziplina espediente bidez baztertua ez egotea herri administrazio, organo konstituzional edo Autonomia Erkidegoetako estatutuen araberrako erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki desgaituta ere emlegu edo kargu publikoak izateko, funtzionario kidego edo eskalara sartzeko edo lan-kontratadun langileen kasuan, baztertu edo desgaitu zizituzenean burutzen zizituzten antzeko funtzioak betetzeiko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baldokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baldokidirik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan emlegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

e) Titulazio akademikoa: Batxilergoa, 2.

CONTRATACION TEMPORAL DE AUXILIAR DE BIBLIOTECA PARA LA BIBLIOTECA COMARCAL DE AIZTONGO PLAZIDA OTAÑO


Plazo de inscripción:
Hasta las 14:00 del día 21/04/2016

Lugar de inscripción:

Los interesados deberán formalizar la solicitud en las oficinas municipales de Aurrera del Ayuntamiento de Zizurkil, junto con el curriculum vitae y copia compulsada de la documentación acreditativa de la titulación exigida.

Condiciones de los aspirantes:
Requisitos.

- a) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.
- c) Tener cumplidos los 16 años, y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.
- d) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.



ZIZURKILGO UDALA

mailako Lanbide Heziketa edo parekoa den titulazio maila izatea, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Alzerriko titulazioak direnean, titulazioa homologatua dela dioen egiaztatzea eduki beharko du.

f) 3. Hizkuntza Eskakizuna edo balioidea izatea.

Oinarri hauean aipatutako betebehark guztiak eskaerak aurkezteko azken egunean bete beharko dira eta momentu guztian mantendu beharko dira.

g) Absysnet-en formazio ofiziala egina duela edota programaren ezagutza egiaztatzea, dagokion dokumentua aurkeztuz.

h) Liburutegi batean gutxienez sei hilabetez lan egin izana.

Kontratu mota: aldi baterakoa. Biarteko lan kontratua. Lanaldi murriztua.

Kontratuaren iraupena: lan-poltsa deialdiaren eabazpena atera arte, eta gehienez 2016ko abenduaren 31ra arte.

Zizurkil, 2016ko apirilaren 11n

JOSE MARIA LUENGO ZAPIRAIN
ZIZURKILGO UDALEKO ALKATEA

e) Titulaci3n acad3mica; Bachiller, Formaci3n Profesional de 2.º grado o equivalente. Estar en posesi3n o haber abonado los derechos para la obtenci3n del t3tulo de Bachillerato, Formaci3n Profesional de Segundo grado o titulaci3n equivalente. En el caso de las titulaciones extranjeras deber3 estar en posesi3n de la credencial que acredite su homologaci3n.

f) Estar en posesi3n del perfil lingüístico 3 de euskera o equivalente.

Todos los requisitos enumerados en las presentes Bases deber3n poseerse al día de finalizaci3n del plazo de presentaci3n de instancias, y mantenerlos en todo momento.

g) Acreditar formaci3n oficial o conocimientos en Absysnet mediante la presentaci3n del correspondiente documento.

h) Experiencia laboral m3nima de seis meses en una biblioteca.

Tipo de contrato: Laboral temporal, de interinidad. Jornada reducida.

Duraci3n del contrato: hasta la resoluci3n de la convocatoria de la bolsa de trabajo, y como m3ximo, hasta el 31 de diciembre de 2016.



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Herriko plaza 1 – 20150 Aduna

Tel: 943692571 Fax: 943690262

E-mail: udala@aduna.eus Web: www.aduna.eus

eta, gainera, askoz merkeagoa zena. Zehazki, aurreikusi ziren zenbait konpostagune, Zubietan TMB-a eta Zestean inerteen gordetegi bat, herri kontsultaren bidez onartuko zena. Baina Diputazioan sartu den gobernu berriak alternatiba hau baztertu eta Zubietako errauste plantaren proiektua berreskuratu du. Birziklapenean buru belarri sakondu baino, berriro ere hondakinak erre nahi dituzte Gipuzkoan. Eta bide horretan, lehen erabakia tasen igoera izan da, hau da "erruste-tasa" baten aurrean egongo ginateke. Baina ez da azken igoera izango, azkenean errauste plantarekin aurrera egiten badute, 2011ean sinatutako kredituaz gain, eraikuntza bera era ordaindu beharko dugulako denon artean, hain zuzen. Eta azken berriek dioten bezala, enpresa pribatu batek kudeatuko du eraikuntza eta zerbitzua. Beraz, aurreikusi daiteke hondakinen tasa Gipuzkoan urtero igo egingo dutela.

Ziur nago gu guztiok birziklatzearen alde gaudela eta zentzu horretan poliki-poliki aurrera pausuak ematen ari gara. Tendentzia hau mantenduz gero, Gipuzkoan errauste planta ez da beharrezkoa izango. Nik uste dut Diputazioa ez dela azpiegitura horrekin tematu behar, eta alternatibak adostasunez pentsatu eta ezarri behar direla. Horregatik, ez dut batere ongi ikusi GHKk-k aldebakartasunez mankomunitateei ezarri digun errauste-tasa hau. Herri honetan, %83 birziklatzen dugulako, Gipuzkoako batz bestekoa %45a denean. Ez al dute gehiago ordaindu behar gutxiago birziklatzen dutenek? Etxean ahalegin handiagoa egiten dugunok sari bat jaso behar dugu, ez zigorra, eta GHK-k ezarri digun tasen igoera hau zigor bat da, ezin da beste era batean ulertu.

Eta, bukatzeko, azpimarratu nahi dut errauste-tasa berri hau ez dela bidezkoa batez ere organikoaren trataeragatik ezartzen diguten prezioagatik. Herri honetan denok oso ondo dakigunez, organikoaren bereizketan dago gakoa, eta bereizketa hori saritu behar da. Gure herrian ondo egiten dugu, eta norbait zigortzekotan, organikoa bereizten ez duenari igo behar zaio tasa, ez guri.

Horiek horrela, legez ordaindu beharrekoa ordainduko du udal honek, baina horrekin batera jakinarazi nahi dizut gure eskuetan dugun guztia egingo dugula Zubietan errauste planta eraiki ez dezaten, Gipuzkoak ezin duelako gehiago zorpetu, udal honek ez duelako gehiago ordaindu nahi behar ez duen azpiegitura batengatik eta garrantzitsuena dena, herritarren osasuna arriskuan jartzen duelako eta Aduna errauskailutik 5km eskasetara dagoelako, azken finean, beste alternatibak egon badaudelako.

Josu Amilibia - Alkatea



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Herriko plaza 1 – 20150 Aduna

Tel: 943692571 Fax: 943690262

E-mail: udala@aduna.eus Web: www.aduna.eus

Adunan, 2016ko Apirilaren 13an

Herritar maitea:

Eskutitz honen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak gure Mankomunitateari hondakinen gaineko tasen igoera ezarri diotela jakinarazi nahi dizut. Honekin batera, igoera honen arrazoiak eta udal taldearen iritzia helarazi nahi dizut.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak abenduaren 31an argitaratu zituen GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren 2016rako tasak. Horren ondorioz, errefusa tratatzeagatik Mankomunitate guztiei 173€ko tasa ezarri die, hau da %20 gehiago. Eta organikoa tratatzeagatik, gure Mankomunitateari 121€ko tasa ezarri digu, hau da, %68 gehiago.

Mankomunitate bakoitzak hondakinen trataeragatik GHKri ordaintzen dionari dagokio igoera hau. Eta udal hau Mankomunitatearen parte denez, Mankomunitateari gehiago ordaindu beharko dio. Halere, udal honek ez du udal tasen igoera aurreikusten eta GHKk aldebakartasunez ezarri digun igoera hau udal aurrekontu orokorraren bidez ordainduko dugula jakinarazi nahi dizut.

Gure herrian errefusaren %20ko igoerak eragiten digu, ez hainbeste organikoaren %68koa. Zergatik? Organikoaren %100a herrian kudeatzen dugulako. Gure birziklatze tasa %83koa da eta beraz errefusa ere gutxi sortzen dugu. Hala ere beste herri batzuk organikoa bereiztuta jasotzen dute eta konpostaje plantara bideratu, hauentzat igoera izugarria izango da.

GHK-k udal honi eta, orokorrean, herritarrei igoera honi buruz informatzeko ahalegin oso urriak egin badiu ere, igoera honen atzean Zubietako errauste planta dagoela begi-bistakoa da. Izan ere, 2011ean, Markel Olano Diputatu Nagusiaren lehen agintaldiaren bukaeran eta gobernu berriak bere kargua hartu baino aste batzuk lehenago, GHK-k banku zehatz batzuekin gehiegizko kontratu bat sinatu zuen erraustegia finantzatzeko, *swap* delakoa, alegia. Zergatik zorpetu ziren hainbeste? Nik ezin dizut hori argitu, baina bai adierazi behar dizut erakunde publikoetan horrelako akordioak ez direla batere normalak eta gure udalean, esaterako, ez dugu inoiz *swap*-ik onartzen.

Edozein kasuetan, argi dagoena da kreditu horien sinadurak gure herrialdea urte askoetarako hipotekatu zuela, eta GHK kinka larrian utzi zuela. Pasa den legealdian, aldiz, Diputazioak errauste plantaren proiektua bertan behera utzi zuen, herri eskaera bati erantzunez. Gelditzearen arrazoiaren artean, errauste plantak eragiten duen osasun-arriskuaz gain, argudio ekonomikoak zeuden. Eta alternatiba bat jarri zen mahai gainean, errauste planta behar ez zuena, birziklatzean oinarritzen zena